

nazioarteko BOLUNTARIOTZAREN ESKULIBURUA

Nafarroako GGKEen Koordinakundea

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Coordinadora de ONGD Navarra
Nafarroako GGKEen Koordinakundea

Edizioa **Nafarroako GGKEen Koordinakundea**
Coordinadora de ONGD de Navarra

Egilea Eragin Sozialeko eta Komunikazioko Batzordea

Itzulpena Luis Miguel Sainz Pezonaga | lmsapga@gmail.com

Diseinua eta maketazioa basati | maitetxumdiez@gmail.com

Azaleko argazkia Nathan Dumlao on Unsplash

Finantzatzailea Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala

Azken edizioa **2018ko abendua**

Coordinadora de ONGD Navarra
Nafarroako GGKEen Koordinakundea

Coordinadora de ONGD de Navarra
Nafarroako GGKEen Koordinakundea

San Pedro Auzoa multzoa 31, behea, ezk.
31014 - Iruñea · 948 240 674
congdn@congdnavarra.org
www.congdnavarra.org

Jarrai iezaguzu

www.facebook.com/coordinadora.ONGD.navarra

@congd_navarra

AURKIBIDEA

#0. Zergatik eskuliburu hau? 5
#1. Definizioa eta nazioarteko boluntariotza-motak 7
#2. Martxan jarri! Aurkitu zeure boluntariotza 17
#3. GGKEen proposamenak 21
#4. Eta zer pentsatzen dute kontraparteek? 33
#5. Maiz egiten diren galderak 37
#6. Eta ez banaiz joaten, zer egin dezaket?… eta itzultzen naizenean? 39
#7. Esteka interesgarriak 45

"Eta, azken batean, errealitatearen gainean jardun eta hura, pixka bat bada ere, aldatzea da errealitatea eraldagarria dela frogatzeko modu bakarra"
Eduardo Galeano

Ben White on Unsplash

#0

Zergatik eskuliburu hau?

Pertsona askok jotzen duzue Koordinakundera GGKEei buruzko informazio bila, nazioarteko boluntariotzako ekimenen batean parte hartu nahi, baina nondik hasi ez dakizuela eta.

Horregatik, eskuliburu hau egitea erabaki genuen: zuen galderei erantzuteko eta, bidenabar, lankidetza hori gure ikuspuntutik zertan datzan azaltzeko. Lehenik eta behin, argitu nahi dugu GGKE batekin lankidetzan aritzeko ez dela beharrezkoa inongo herrialdetara joatea eta hori zeure ingurunean egin dezakezula; baina, pertsona askok interes hori duzuenez gero, hona hemen eskuliburu hau.

Lankidetza-era asko daude, eta garrantzitsua da bakoitzak honelako galderak egitea bere buruari: zergatik aritu nahi dut boluntario, zer gaitasun ditut, zer egin nahi dut, zenbat denbora dut horretan erabiltzeko, etab.? Boluntariotza oso esperientzia aberasgarria izan daiteke, baina badu garrantzia aurretiaz lan on bat egiteak informazioa biltzen.

Horrelako esperientzia baten helburua ez da “laguntzea”, Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden desparekotasunezko harremanak ulertu eta haiei buruzko ezagutzak handitzea baizik, baina, era berean, beste giza nolakotasun batzuk garatzea, hala nola talde-lana, komunikazio- eta antolakuntza-trebetasunak, eta abar.

Eskuliburu honetan biltzen dira, labur-zurrean, boluntariotzari zer irizten zaion eta zer ez, parte hartu duten zenbait pertsonek emandako lekukotasunak, maiz egiten diren galderak, eta GGKEen eskaintza.

Espero dugu argi eta erraza izatea zuentzat.

Gogoan izan, GGKEetara ez ezik, Koordinakundera ere jo dezakezuela, aholku eske (aurretiaz hitzordua ezarririk).

Nafarroako GGKEen Koordinakundearen Argibide Bulegoa[1]
San Pedro Auzoa multzoa 31, behea, ezk. 31014 - Iruñea
Tel. **948 24 06 74**
congdn@congdnavarra.org
www.congdnavarra.org

www.facebook.com/coordinadora.ONGD.navarra
@congd_navarra

1.- Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmenari esker finantzatzen da bulegoa.

#1

Definizioa eta nazioarteko boluntariotza-motak



Bryan Minear on Unsplash

1.1 Definizioa

Pertsona **boluntarioak** bere denbora, ezagutzak, esperientzia etab. eskaintzen ditu doan, borondatezko lan bat egiteko. Pertsona horrek konpromisoa hartzen du, libreki, era eskuzabal eta antolatu batean interes sozialeko jardueretan aritzeko.

Zure eskubide eta betebeharrak xeheago ezagutzeko, kontsultatu **Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legea, estatu-mailakoa**[2].

Labur-zurrean, hau azalduko dugu:

1. "Boluntariotza deritzo pertsona fisikoek egiten dituzten interes orokorreko jardueren multzoari, betiere jarduera horiek ez badira egiten laneko, merkataritzako, funtzionariotzako edo ordaindutako beste edozein harremanen bidez eta ondoko baldintza hauek betetzen badituzte":

2. **Kanpoan gelditzen dira** irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuetatik at gauzatzen diren **borondatezko jarduera bakanak**, familiako, adiskidetasuneko edo auzotasun oneko arrazoiengatik eginak

3. Boluntariotzako jarduerak **ezingo du**, inola ere, **lan ordaindua ordeztu**.

2.-https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-11072

Boluntariotzako jarduera hurbileko ingurunean egin daiteke (auzoa, hiria, herrialdea), bai eta beste herrialde batzuetan ere. Azken horri **nazioarteko boluntariotza** deitzen zaio.

Badira zenbait ideia oker, orobat, eta halakoak hurrengo taulan argitzen dira.

Zer da nazioarteko boluntariotza?

HAU BAI	HAU EZ
Ekintza **antolatu eta planifikatu bat**, GGKE edo nazioko zein nazioarteko erakunde autonomo batek egina	Ekintza espontaneo eta inprobisatu bat, borondate onaren ondoriozkoa eta erakunde baten esparrutik at dagoena
Oinarri filosofikoak eta etikoak dituen praktika bat, garapeneko, elkartasuneko eta humanitarismoko **helburuak dituena**	Antolatu gabeko ekintza batzuen multzoa, erakunde baten estrategiarik gabekoa
Denboran zehar irauten duten prozesu parte-hartzezko eta independente batzuk **sortzen dituen ekintza ba**t	Ekintza paternalista, asistentzial eta puntual batzuk, mendekotasuna sortzen dutenak
Bai Hegoaldeko komunitate eta kontraparteen tokian tokiko **gaitasunak**, bai GGKEenak eta haietan lan egiten duten pertsonenak, **bultzatzen dituen ekintza** bat	Iparraldeko kontraparteen joerak, politikak, ikuspuntuak eta lan-moldeak inposatzen dituen ekintza bat
Justiziari eta aniztasun kultural eta sozialarekiko errespetuari lotutako **balio eta printzipio batzuk sustatzen dituen** ekintza bat.	Eraldaketa sozialarekin eta kultura-arteko balioen babesarekin konpromisorik ez duten esku-hartze batzuk
Errespetuzko hurbiltze bat ezagutzen ez dugun errealitate batera. **Etengabeko behaketa, gogoeta eta ikaskuntza** da	Hegoaldera, urrutiko toki exotikoetara oporretan joatea. Ez da moda bat edo erantzukizun pertsonalak, familiarrak nahiz sozialak saihesteko aukera bat

1.2 Motak

Nazioarteko boluntariotzaren barruan zenbait mota daude; alabaina, proposamenak ez dira beti azaldutako mota batera edo bestera zehazki egokituko. Honela taldekatu ditugu:

ELKARTASUN-AUZOLANDEGIAK (Egonaldi Laburra)

Egonaldi hauek bide ematen dute Hegoaldeko herrialdeetako gizon eta emakumeak ezagutzeko, haiekin bizitzeko, eta beren komunitateetan aurre egin behar dieten premiak eta kezkak ulertu eta partekatzeko, bai eta haien borrokak ere.

Helburua da Hegoaldeko herrialdeenganako jarrera konprometituagoak eta errespetu handiagokoak sortzea, tokiko proiektuan lan egitearekin batera. Landa- edo hiri-inguruenean bizitzen da, eta bertako familia baten etxean edo komunitatearen lokal batean hartzen da ostatu.

Iraupena: hilabete batetik bi hilabetera bitarte.

PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK LEKUAN BERTAN

Egonaldi hauek batez ere prestakuntzan eta sentsibilizazioan zentratzen dira, eta parte-hartzaileek lantegi teoriko-praktikoak egiten dituzte lekuan bertan[3], GGKEek gauzatzen dituzten proiektuak ezagut ditzaten eta, horrela, proiektu bat eta hura eratzen duten pausoak ahalik eta erarik osoenean uler ditzaten.

Iraupena: hilabetekoa, normalean udan.

3.- "Lekuan bertan" esatean, dena delako GGKEak bere proiektuak aurrera eramaten dituen eta tokiko jendearekin lan egiten duen lekuaz, herrialdeaz, ari gara.

ELKARTASUN-BRIGADAK

GGKEekin eta tokian tokiko mugimendu sozialekin Hegoaldeko herrietara egiten diren talde-bidaiak dira. Beraien helburua da herrien errealitateak eta borrokak hurbiletik ezagutzea, mugimendu horiekin bizitzea eta, gehienetan, haien borroka politiko eta sozialei babes esplizitu bat ematea. Itzultzen denean, salaketa eta sentsibilizazioa egiten da, han bizitako errealitateak eta esperientziak hemen ezagutarazteko. Batzuetan lan zehatzak egiten dira; beste batzuetan, bisitaldiak eta informazio-bizipenen trukaketa soilik.

Iraupena: 15 egunetik hilabete batera bitarte

EGONALDI LUZEKO BOLUNTARIOTZA

GGKE batzuek esperientzia luzeagoak egiteko aukera ematen dute. Horretarako, aurretiazko prozesu bat bete behar da, prestakuntzakoa eta GGKEan parte hartzekoa, GGKE bakoitzak era jakin batean antolatutakoa.

Pertsonak garapenerako lankidetzako proiektu jakin bat ezagutuko du zuzenean, eta zenbait zereginetan arituko da, bere profilaren eta helmugako herrialdeko GGKEaren premien arabera. Iraupena GGKEaren eta boluntarioaren beharren araberakoa da.

Iraupena: hilabetetik hiru urtera bitartekoa izaten da

TURISMO ARDURATSUA

Ez da, berez, boluntariotzako jarduera bat, baina GGKE batzuek hura ere antolatzen dute. Turismo mota honek ahalmen handia du garapen eta aldaketarako tresna izateko, ez turismo konbentzionalak bezala, azken horrek inpaktu negatiboa izan dezakeelako komunitateetan zein ingurunean.

Turismoko ekimen hauek, normalean, garapenerako plan zabalago batzuen barruan kokatzen dira; harrerako komunitateek berek kudeatzen dituzte, eta tokiko herrien osotasun kulturala, ingurunea eta bizimoduak ahalik eta gehiena errespetatzea dute xede. Ez da jarduera zehatzik egiten; horren ordez, interes turistikoko lekuak bisitatzen dira, tokiko errealitatea ezagutzearekin batera, sentsibilizatzeko eta beste kultura batzuekin zein gauzak egiteko beste molde batzuekin harremanetan sartzeko bide gisa.

Iraupena: 15 egunetik hilabete batera bitarte



TESTIMONIOS

"Guatemala, maila pertsonalean zein profesionalean, nire bizitzako bizipenik nagusietako bat izan da. Maila pertsonalean, garapenerako hezkuntzaren eragin eraldatzailea zuzenean ikusi ahal izan dudalako; eta, maila profesionalean, nire ikasleei Hegoaldeko herrialdeetan bizitzen ari denaren berri eman ahal dudalako... baina mezua neure barru-barrutik emanez."

Ramón Salvador.
Irakaslea. FABREko boluntarioa Guatemalan (2018)

"...El Salvador aukeratu nuen haren historia barrutik ezagutu nahi nuelako, hau da, gerratea bizi izan zuen jendearen beraren hitzetan oinarriturik... Oso pobreturik eta, gainera, kanpoan oso estigmatizaturik dagoen herrialde baten errealitatea ezagutzea interesatzen zitzaidan."

Nerea Fernández.
Boluntarioa TAU fundazioarekin

"Sentipena dut hondar-aletxo bat kentzen dudala bizi garen bidegabekeriaren basamortutik."

Mª Eugenia Ariz.
Anarasdeko boluntarioa

"Nik sentitzen dut honelako esperientzia bat bizi beharra dagoela, beste herrialde batzuetan bizi izaten diren errealitate eta bidegabekeriak ikusteko. Hemen bizitakoak bizitza osoan zehar eramango dut aldean, honek pertsona gisa aldatu egin nauela sentitzen dudalako, eta hemendik aurrera zer egin nahi dudan jakiteko balio izan didalako. Aurrerago honelako esperientziak bizitzen jarraitzeko ankera izan nahi dut. Hemendik, irribarreak eta jendearekin komunitateetan bizitako uneak daramatzat, beren etxean neurean bezala sentiarazi naute eta."

Arantxa Arregi. *Esperientzia Cabañas-Cuscatlánen (El Salvador), El Salvador Elkartasuna GGKEaren bidez*

"Garrantzi handiko bizipen bat da, bai bizitzaz dugun ikuspegia, bai justiziaz zein elkartasunaz dugun ideia aldatzen dituena."

Alberto Landa.
Anarasdeko boluntarioa

"Esperientzia hau laburbildu behar badut, burutatzen zait onena da 'Quid pro quo' esatea, hots, 'zerbaiten truke beste zerbait'. Zure bizitza hor non'bait uzten duzu, bidaia aberasgarri bat hasteko, maila pertsonalean zein profesionalean lagunduko dizuna. Eta bidaia horretan ematen duzuna, hain zuzen, gutxi da jasotzen duzunaren aldean. Komunitatean bizitzen ikasten duzu, zeure burua hobeki ezagutzen, baina, oroz gainetik, ganza txikien balioaz ohartzen. Esan liteke esperientzia bikaina izaten ari dela, eta ez da azkena izango."

Alba Leoz. *Esperientzia Cabañas-Cuscatlánen (El Salvador), El Salvador Elkartasuna GGKEaren bidez*

"Afektua, samurtasuna, besarkada... pertsonen bihotzerako lehen atea diren sinestea sendotu dut haiekin. Haur bakoitzaren historia eratzen duten errealitate pertsonal eta familiarretara hurbildu gara, eta bihotza hunkitu gaituzte."

Mª José. FUNDEO

"Esperientzia hau bizitzea da esku hutsik joan eta eskuak laztanez eta estutuz beteta itzultzea, belarriak istorio goxo eta erdiragarriz mukuru, eta bihotza, bizitzaren tarte labur hau, zori onez, partekatu dudan pertsonen etengabeko ahotsekin."

Alberto. FUNDEO

"San Gabrielen izan dudan esperientzia sekulakoa izan da. Ikusi ditudan premia horien guztien erdian, jendea oso abegikorra da. Eta alaia. Misiolariei esker, giza komunitate hau ezagutzeko aukera izan dut, eta beraien etxeetan sartzen utzi didate, beraien errealitatea hurbiletik ezagutzen."

Salomé Preciado.
San Gabriel (Bolivia). Boluntarioa Pueblos Hermanos fundazioarekin.

"Haiei esker, errealitate jakin batzuen parte izan gaitezke, garen eta dugun guztia ekarrita, bidelagun horiengandik, aldi berean, haiek diren eta duten guztia jasotzen dugula."

Raquel. FUNDEO

"Haurren eskerr oneko irribarreez gain, aita-amen oroitzapena, borroka nekaezina ere badaramagu gurekin, egunerokoa bizitza adoretzen duen maitasuna, susperraldi bat lortzearren, hura txikia izanik ere."

Claudia, **Irene** eta **Hugo**. *Yassako Saint Jean de Dieu klinikako boluntariotza, Doualan (Kamerun), Juan Ciudad GGKEaren bidezONGD*

"...arlo kultural zein sozialaren aldetik nabarmen desberdintasunak ditugun leku batean, landa -eta komunitate- bizimodu bat bizitzeko esperientzia aprobetxatu ahal izateko. Geure konfort-egoeratik zein errutinatik irteteak ezagutza aberasgarriak ematen ditu beti, eta hori bizikoa ginen komunitateari ekarpen txiki bat eginez gauzatzea ezin utzizko aukera bat zen niretzat..."

Jon Zumalabe.
Boluntarioa TAU fundazioarekin

"Boluntario aritzeko gomendatzen dut, eta ni mila aldiz geniago arituko nintzateke, baina ohartu behar dugu ez dela beharrezkoa beste herrialde batera joatea laguntzeko, 'ondoan dugunari eduki behar diogu begia'."

Beatriz García. *Boluntariotza Cuscon (Peru), Juan Ciudad GGKEaren bidez*

"Izugarri gustatu zaigu ikusi duguna. Baina nahiago genuen, pertsona horientzat geniago egin ahal izan bagenu. Denborak baina, ez digu geniagoko betarik eman. Haur guztiek, familiek, beraien eskola dekora genezan nahi zuten. Eder-ederrak geratu dira, egia esatera."

Sara eta Ana Baztán.
Dadouar (Txad). Boluntarioak Pueblos Hermanos fundazioarekin.

Mikael Kristenson on Unsplash

#2

Martxan jarri! Aurkitu zeure boluntariotza

Boluntariotza, hemen ala han? Zer egin dezaket? Zuk zer egin duzu?

Nik bietakoak egin ditut, he, he. Gogoan izan, ez dago zertan beste herrialde batera joan, boluntario aritzeko. Baina, nahi baduzu, 3 pauso hauek betetzeko gomendatzen dizut:
– Hemen prestakuntza jaso.
– Hegoaldera joan.
– Eta itzultzean... zer?

INPLIKATU

2.1. GGKE batekin lankidetzan aritu nahi dut. Baina… hemen ala beste herrialde batean?

GGKE batekin lankidetzan aritzeko asmoa baduzu, gogoan izan ez dagoela zertan beste inora joan; oro har, **gure ingurunean izaten da baliotsuagoa gure laguntza**, beste herrialde batean baino.

Nolanahi ere, joan edo ez, hasteko komeni da **informazioa** bilatzea GGKEei buruz: zer egiten duten, zein proiektu eta herrialdetan lan egiten duten, zer kanpaina dauzkaten, eta abar. Horrela, ikusi ahalko duzu zer gai interesatzen zaizkizun gehien, zenbat denbora erabil dezakezun eta zein ordutegitan, eta abar.

Kontuan hartu GGKE bakoitzak bere erara antolatzen dituela boluntarioak, bere espezialitatearen, beharren, eta antolakunde-ereduaren arabera, pertsonaren profilaren nahiz erabilgarri duen denboraren, eta abarren arabera.

Hori dela eta, gomendatzen dizuegu bisita egin dezazuela haien webgunean edo haiekin harremanetan jar zaiteztela. Hala ere, argi ez baduzue, hiriko **argibide-bulegoetara** jotzea duzue, eta hor ziur orientatzeko modua izango dutela. Adibidez:

1 Nafarroako GGKEen Koordinakundea
https://www.congdnavarra.org/

2 Gaztediaren Etxea (Iruñeko Udala)
http://www.pamplonajoven.es/verPagina.asp?idPag=206&idioma=2

3 Nafarroa Orotan Lagun (Nafarroako Gobernua)
https://www.navarramasvoluntaria.es/

2.2. Zer egingo dut zehazki? Nire “laguntza” garrantzitsua da?

Nazioarteko boluntariotza ez da bidaiatzeko era exotiko eta merke bat. Halako esperientzien helburu nagusia da **Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko arazoak** ulertzea, bidegabekeriaren errealitatearekin zuzenean harremanetan egonez eta GGKEen proiektuak partekatuz.

Horregatik, interesa duen edonork parte har dezake, baina helmuga bakoitzaren berezitasunak eta azken urteetan parte hartzeko egon den eskari handia direla eta, GGKE askok baldintzak jarri dituzte.

Ez da pobreei laguntzera joatea, baizik eta **prestakuntza-esperientzia bat, eta gure mugetatik nahiz gure eguneroko ezagueratik oso urrutik dagoen errealitate baten jakitun izatea**. Horregatik guztiagatik, guk esan nahiago dugu **“esperientzia bat partekatzea”**.

2.3. Orduan, nola parte har dezaket nazioarteko boluntariotzako programa batean?

Oro har, hau egiteko gomendatzen dizuegu: **INFORMATU, PRESTAKUNTZA JASO, BIDAIATZEKO PROPOSAMENAK EZAGUTU ETA… ITZULTZEAN?**

1. Nazioarteko boluntariotzan arituko zareten GGKEa ezagutu eta berari buruz informatu behar duzue, eta, halaber, **GGKEak zuek ezagut zaitzatela**, zuen interesak, motibazioak, eta abar.

2. Bidaiatu aurreko prestakuntza.

GGKE gehienek ikastaroak eta prestakuntza-saioak ematen dituzte bidaiatu aurreko hilabeteetan, parte-hartzaileok –adituen laguntzarekin– sakonago ezagutu eta hobeki uler ditzazuen Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desparekotasunen arrazoiak nahiz halakoak konpontzeko bideak, biziko zareten kultura, eta hartuko zaituzten antolakundearen arazo zehatzak nahiz proiektuak. Horregatik, **prestakuntza-prozesua garrantzi handikoa da**.

Prestakuntza horri esker, boluntarioak eta erakundeak **elkar ezagutu** ahal dute, eta helburu bera duten ala ez ikusi (parte hori funtsezkoa da, eta normalean ez diogu horri erreparatzen).

"Viajar al Sur en clave de Solidaridad":
http://youtu.be/LtzQPN3Vtkl

3. GGKEen proposamenak

Eskuarki, GGKEek nazioarteko boluntariotzako programak izaten dituzte, eta haietan ematen dituzte aditzera bidaiatzeko baldintzak, epeak eta denborak (hurrengo atalean dituzue). Ekintza planifikatuak izaten dira, zaila delako norbait gehitzea "edozer" egiteko, eta are gutxiago berehalakoan.

Eskuliburu honetan Koordinakundeko hainbat GGKEren proposamenak dituzue.

Gehien interesatzen zaizuna aurkitu eta gero, harekin harremanetan jar zaitezkete, zalantzak argitzeko; esaterako:

- Zein proiektutan parte hartuko duzuen, eginkizun gutxi-asko zehaztuak dituen, zer egiten duten, nolakoa izango den zure eguneroko bizitza, zein den arduraduna, ezustekorik gertatuz gero…
- Halaber, **beste boluntario batzuekin** jar zaitezkete harremanetan, eta ziur aski zalantza praktiko asko argituko dizkizuete.

4. Eta itzultzean?

Gogoan izan esperientzia hau ez dela bukatzen boluntario-lana egin duzuen herrialdea uzten duzuen egunean. Geure eguneroko bizitzan gauza asko egin ditzakegu: GGKE batean inplikatu eta bertan lankidetzan aritzetik hasi, bizi garen eraren inguruan pentsatu eta gogoeta egin, eta zer alda dezakegun ikusteraino *(eskuliburu honetako 6. atalean argibide batzuk ematen ditugu)*.

#3

GGKEen proposamenak[4]

Honaino iritsita, ezagut dezagun Koordinakundeko GGKEen eskaintza.

Grant Ritchie on Unsplash

4.- GGKEei buruzko argibide gehiago nahi baduzue, kontsultatu haien webguneak edo GGKEen direktorioa: http://www.congdnavarra.org/ongd-socias/

AMBALA

AMBALA

Motak	Egonaldi labur eta luzeko boluntariotza
Gaiak	Osasuna (lan asistentzialetan batez ere)
Herrialdeak	Kamerun
Iraupena	3 astetik 6 hilabetera bitarte
Baldintzak	• Frantsesa: maila ertaina. • 23 urtetik gora. • Osasun-arloko titulu bat izatea (medikuntza, erizaintza…). • Erakundearen balioekin bat etortzea.
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** hegaldiaren, bisaren, aseguruaren, txertoen eta mantenuaren kostua. **GGKEa:** ostatua ematen du. *(Egonaldi luzeko boluntariotzetan baldintzak bestelakoak dira, GGKEak kostuen zati handi bat hartzen du bere gain)*
Harremana	Marga Iraburu **T. 655 708 703** voluntariado@ambalaong.org info@ambalaong.org **www.ambalaong.org**

Mugarik Gabeko Langile eta Teknikarien elkartea - ATTsF

Motak	Bidaia puntualak, egonaldi labur edo ertaineko boluntariotza.
Gaiak	Laguntza humanitarioa, logistika, ur-hornidura eta saneamendua, azpiegiturak
Herrialdeak	Aljeria (saharar iheslarien kanpamentuak)
Iraupena	Ez da finkoa
Baldintzak	Hainbat arlo teknikotan ezagutzak eta esperientzia izatea: elektrizitatea, iturgintza, mekanika, elektromekanika, elektronika, igeltserotza, etab.
Kostuak/ finantzaketa	Erakundeak bere gain hartzen ditu joan-etorri, ostatu eta dieten gastuak.
Harremana	Eduardo Irigoyen attsfnavarra@gmail.com **www.attsf.org**

MADRE CORAJE elkartea

Motak	Egonaldi luzeko boluntariotza, lekuan bertan dauden premien arabera
Gaiak	Ekonomia, hezkuntza eta gobernagarritasuna eta herritartasuna, aldi berean genero-berdintasunaz, kultura-identitateaz, antolakuntzaren sendotzeaz eta ingurumenaren zaintzaz arduratuz.
Herrialdeak	Peru eta Mozambike
Iraupena	**Egonaldi luzeko boluntariotza:** 9 hilabete (gutxi gorabehera).
Baldintzak	• Madre Coraje Nafarroaren egoitzan urtebetez boluntario aritzea, elkartearen lana ezagutzeko. • Prestakuntza jakin bat jasotzea. • Helmugako herrialdean beteko den posturako ezagutzak/esperientzia izatea.
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** hegaldia, txertoak, eta eskudirua. **GGKEa:** istripu- eta gaixotasun-asegurua herrialdeko egonaldi guztian. **Tokiko erakunde kidea (kontrapartea):** ostatua eta mantenua.
Harremana	Laura Irurzun **Video: https://www.youtube.com/watch?v=FGChEsuwIf8** lirurzun@madrecoraje.org **www.madrecoraje.org/**

R.A.S.D. Adiskidantzarako Nafar Elkartea – ANARASD

Motak	Elkartasun-auzolandegiak
Gaiak	Osasuna, hezkuntza, beste
Herrialdeak	Sahara: saharar iheslarien kanpamentuak. Iruñeko egoitzarako boluntarioak ere onartzen dira.
Iraupena	15 egunetik hilabetera bitarteko egonaldiak. Apiril/maiatzaren eta azaro/abenduaren artean. Zenbait kasutan, egonaldi luzeak egiteko aukerak.
Baldintzak	Medikuntzako eta erizaintzako tituludunak, mantentze-lanetako, administrazioko eta beste arlo batzuetako pertsonal teknikoa, lan egiten den proiektuarekiko atxikimendu eta konpromisoarekin, Nafarroan izan zein lekuan bertan izan. Nafarroan erakundean parte hartzea. Erakundeak bere gain hartzen du prestakuntza.
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** proiektu zehatz bati atxikita egon gabe, bere gain hartzen ditu hegaldia, bisa, ostatua, etab. **ONGD:** gastu guztiak ordaintzen ditu (bidaia, egonaldia, eta dietak). Profila proiektuetan eskatzen denari egokitzen bazaio.
Harremana	Txaro Pardo **T. 948 29 16 77** anarasd@yahoo.es **www.anarasd.org**

El Salvador
Elkartasuna kolektiboa

Motak	Elkartasun-auzolandegiak, elkartasun-brigadak eta egonaldi luzeko boluntariotza
Gaiak	Osasuna, adingabeak, emakumeak, nekazaritza jasangarria, ingurumena, laguntza oro har.
Herrialdeak	El Salvador
Iraupena	Hilabete batetik 6 hilabetera bitarte
Baldintzak	Elkarrizketa bat gainditzea. Konpromisoa betetzeko adinako osasuna eta gaitasuna izatea. Beste baldintza batzuk, egingo duen lanaren eta integratuko den komunitatearen arabera
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** bere bidaia, bisak eta txertoak ordainduko ditu. **GGKEa eta tokiko erakunde kidea (kontrapartea):** egonaldi luzeko boluntariotzan soilik, ostatua komunitatearen gain egongo da.
Harremana	Peio Goyache elsalvadorelkartasuna@gmail.com **T. 669 126 999 edo** **www.elsalvadorelkartasuna.eus** **T. 680 138 632**

ALBOAN

ALBOAN fundazioa

Motak	Egonaldi luzeko boluntariotza (VOLPA programa)
Gaiak	Haurrak, gazteak, lan komunitarioa, hezkuntza formala, ez-formala, irrati bidezkoa, etab.
Herrialdeak	Latinoamerikako eta Afrikako hainbat herrialde
Iraupena	Aurretiazko prestakuntza: urtebete (1), urteko lehen hiruhilekoan hasita. **Egonaldi luzeko boluntariotza:** urtebetetik 2 urtera bitarte **Boluntariotza ondokoa:** 6 hilabete gutxienez.
Baldintzak	21 urte gutxienez. Jarrera egokiak, heldutasun psikologikoa nahiz giza heldutasuna, gaitasunak eta elkarrizketarako jarrera irekia eta begirunezkoa esperientziarekiko. Nafarroan edo EAEn bizitzea
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** hegaldi-txartela (joan eta etorri) **GGKEa:** Asegurua **Finkatzeko:** ostatua eta dietak.
Harremana	Mentxu Oyarzun alboanna@alboan.org **T. 948 23 13 02** **www.alboan.org/es/que-puedes-hacer-tu/ser-voluntario**

Enrique de Ossó fundazioa - FundEO

Motak	Elkartasun-auzolandegiak eta nazioarteko boluntariotza
Gaiak	Haurrak, emakumeak, eta osasuna
Herrialdeak	Kolonbia, Uruguai, Paraguai, Ekuador, Angola, Sao Tome eta Principe.
Iraupena	Hilabete bat udan.
Baldintzak	22 urtetik gora. Aurretiazko elkarrizketa bat eta bi prestakuntza-topaketa (asteburu bat martxoan eta beste bat maiatzean), eta beste topaketa bat esperientziaren ondoan (asteburu bat irailean)
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** prestakuntza-topaketak (155 € inguru), helmugako herrialderako bidaia eta egonaldia **GGKEa eta tokiko erakunde kidea (kontrapartea):** asegurua
Harremana	Beatriz Sánchez eta Esther Fabelo voluntariado@fundeo.org **T. 647 329 253** **www.fundeo.org**

FABRE fundazioa

Motak	Elkartasun-auzolandegiak eta egonaldi luzeko boluntariotza
Gaiak	Emakumeentzako hezkuntza, osasun eta gaikuntzako proiektuetan lan egitea lekuan bertan.
Herrialdeak	Guatemalan
Iraupena	Hilabete batetik 6 hilabetera bitarte
Baldintzak	Elkarrizketa eta ados egotea lan-baldintzekin, tokiko kontraparteak eskatutakoaren arabera
Kostuak/ finantzaketa	**GGKEak** asegurua hartzen du bere gain egonaldi guztian, eta tokiko erakunde kideak herrialde barruko joan-etorriez arduratzen da lanaldietan.
Harremana	Celia Pinedo celia.pinedo@fundacionfabre.org **T. 615 214 383** info@fundacionfabre.org **www.fundacionfabre.org**

Fundación Itaka Escolapios

Motak	Elkartasun-auzolandegiak eta egonaldi luzeko boluntariotza 1. SAL proiektua (urtebeteko prestakuntza, 1-2 hilabeteko esperientzia herrialde pobretu batean, eta urtebete esperientziaren integraziorako). 2. Nazioarteko borondatezko lankideak (kooperanteak), iraupen luzekoak (2-3 urteko egonaldia herrialde pobretu batean, proiektu batean lankidetzan).
Gaiak	1. SAL proiektuko ("Sal de tu tierra") lehen urtea. 13 saio: esperientziaren aurreko motibazioak; errealitatearen azterketa; giza garapenaren ikuspegia; alderdi praktikoak: esperientziaren dekalogoa; helmuga bakoitzeko errealitatea; lekukotasunak: beste urte batzuetako parte-hartzaileen eta iraupen luzeko borondatezko lankideen mahai-ingurua; norbere burua babesgabeenei ematearen espiritualtasuna; aurreiritziak eta konparazioak; beste errealitate batzuk irakurtzen jakitea, etab. 2. SAL proiektuko ("Sal de tu tierra") bigarren urtea. 7 saio: esperientzia partekatu; desberdintasuna ezagutzen; besteenganako prestasunean hazten; etab.
Herrialdeak	Bolivia, Dominikar Errepublika, Kamerun, Nikaragua, Mexiko, Ekuador…
Iraupena	(Esperientziarena): 1-2 hilabete mota batean eta 2-3 urte bestean.
Baldintzak	1. SAL proiekturako: a. 22 urte beteta esperientzia egiten den urte berean. b. Itaka-Eskolapioetako hezkuntza-taldekoa izatea edo Itaka-Eskolapioetan boluntario gisa behar adinako ibilbidea izatea. c. SAL proiektuaren konpromisoaren eskakizunak onartzea Itaka-Eskolapioekin (proiektuko bi urteak egitea, saio guztiekin; esperientziarako eskainitako helmuga onartzea; bidaia-txartela zein bidaia-asegurua ordaintzea; prest egotea sentsibilizazio-lanak egiteko, etab.) 2. Iraupen luzeko nazioarteko borondatezko lankideentzat: SAL proiektua eginda edukitzea; aurretiazko prestakuntza-bilerak; Itaka-Eskolapioekin lotura izateko konpromisoa; ordain ekonomikoari uko egitea…
Kostuak/ finantzaketa	**SAL proiektua:** 100 € bi urteengatik, eta bidaia-txartelaren eta aseguruaren kostua ordaintzea.
Harremana	Raúl González. raulgonzalez@escolapiosemaus.org **T. 948 203 891** **www.itakaescolapios.org**

Proclade Yanapay fundazioa

Motak	Elkartasun-auzolandegiak
Gaiak	Hezkuntza
Herrialdeak	Bolivia, India
Iraupena	Hilabete eta erdi (uztail-abuztuetan)
Baldintzak	• 21 urtetik gorakoak. • Kristau-jarrerakoak eta fede-esperientzia baterako irekiak. • Interesa izatea Hegoaldeko herrialdeen egoeraren, elkartasunaren, eta misio-lanaren inguruan. • Urtebeteko esperientzia, gutxienez, boluntariotza sozialean. • Taldean bizi eta lan egiteko prestasuna. Aurretiaz, 4 hilabeteko prestakuntza-prozesu bat egiten da.
Kostuak/ finantzaketa	Boluntarioak bere gain hartzen ditu esperientziaren gastuak: topaketak, bidaia, asegurua, txertoak... Misioko ostatua eta mantenua erakundearen gain egongo dira.
Harremana	Jesús Blanco voluntariado@procladeyanapay.org **T. 948 250 400**

Pueblos Hermanos fundazioa

Motak	Egonaldi aldakorreko nazioarteko boluntariotza
Gaiak	Osasuna, hezkuntza, pastoralgintza, emakumeak, lagun-egite integrala.
Herrialdeak	Bolivia, Venezuela, Txad, Kamerun, Kongo (hiru herrialde horietarako, ezinbestekoa da frantsesezko oinarria izatea), India (ingelesa beharrezkoa da). Eskaintza herrialdearen egoeraren mende nahiz kontraparteen premien eta prestasunaren mende dago.
Iraupena	Joatekoa denaren eta kontraparteen premien arteko elkarrizketan oinarritua. Hilabete batetik aurrera (udan, eskuarki). Egonaldi ertain eta luzeko boluntariotza ere bai (3 hilabete-1 urte).
Baldintzak	• Pueblos Hermanos fundazioaren prestakuntza-prozesuan parte hartzea. • Norbere gain hartutako zerbitzuan, jokabidezko eta erantzukizunezko konpromiso batzuk onartzea. • Beste baldintza batzuk, egingo duen lanaren eta integratuko den komunitatearen arabera.
Kostuak/ finantzaketa	Kostuak boluntarioaren gain egongo dira (bidaia, txertoak eta harrera egiten dion komunitatea mantentzeko ekarpena).
Harremana	Conchita Ardanaz conarla@hotmail.com

TAU Fundazioa

Motak	Elkartasun-auzolandegiak
Gaiak	Osasuna, haurrak, garapena, emakumea, lankidetza oro har.
Herrialdeak	Bolivia, Dominikar Errepublika, El Salvador, Maroko (*azken herrialde horretarako, ezinbestekoa da frantsesezko oinarria izatea, ahoz eta idatziz bederen*).
Iraupena	Boluntario joan nahi duen pertsonarekiko elkarrizketan oinarritua.
Baldintzak	Bidaia, bisak eta txertoak ordaintzea. Konpromisoa betetzeko adinako osasuna eta gaitasuna izatea. Beste baldintza batzuk, proiektuan egingo duen lanaren eta integratuko den komunitatearen arabera.
Kostuak/ finantzaketa	Kostuak boluntarioaren gain egongo dira. Aurretiazko prestakuntza nazioarteko boluntariotzan aritu nahi duen pertsonarekiko elkarrizketan oinarrituko da.
Harremana	Fausto Yudego eta Marta Mañeru tau_na@taufundazioa.org **T. 948 246 624**

Jóvenes y Desarrollo fundazioa

Motak	Elkartasun-auzolandegiak eta egonaldi luzeko boluntariotza
Gaiak	Hezkuntza eta garapenerako lankidetza
Herrialdeak	Afrika eta Latinoamerikakoak
Iraupena	Egonaldi laburra: hilabete baino gehiago; egonaldi luzea: urtebete
Baldintzak	Erakundeak ematen duen prestakuntza-ikastaroa egin eta gainditzea
Kostuak/ finantzaketa	Prestakuntza doakoa da **Boluntarioa:** bidaia-txartela eta gastu pertsonalak. **GGKEa eta tokiko erakunde kidea (kontrapartea):** asegurua, ostatua eta mantenua.
Harremana	Jose Antonio Alemán j.aleman007@gmail.com **T. 948 229 465** jyd@jovenesydesarrollo.org

Juan Ciudad GGKE

Motak	Egonaldi ertaineko boluntariotza
Gaiak	Osasuna, osasun mentala, desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak
Herrialdeak	Peru, Bolivia, Kamerun, Ghana
Iraupena	2-3 hilabete

Baldintzak	- Peru, Bolivia: prestakuntza eta esperientzia arlo hauetan: desgaitasuna, osasun mentala eta adinekoak. - Kamerun, Ghana: Prestakuntza eta esperientzia osasun-arloan (errehabilitazioa, erizaintza komunitarioa) - Ingeles edo frantsesezko maila ona (Afrikako herrialdeetarako boluntarioek) Gainera: - Erakundearen balioekin bat datozen jarrerak http://www.juanciudad.org/?q=mision - Behar den aurretiazko prestakuntza egitea Juan Ciudad GGKEarekin - Sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako jardueretan inplikatzeko prestasuna
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** bidaia-gastuak, bisak, txertoak eta beharrezko profilaxiak. Aurretiazko elkarrizketarako eta prestakuntzarako joan-etorriak. Tokiko erakunde kidea (kontrapartea): ostatua eta mantenua **GGKEak:** Osasun-laguntzako eta istripuetarako asegurua.
Harremana	Elisa Molins (*Arduraduna Nafarroan*) emolins@ohsjd.es **T. 948 23 18 00 Luzp. (818130)** navarra@juanciudad.org Belén Jiménez (*Boluntariotza-arduraduna Madrilen*) voluntariado@juanciudad.org **T. 913 87 44 83** **www.juanciudad.org** **www.oh-fbf.it**

Mundubat

Motak	Elkartasun-auzolandegiak *Mundubatek lankide dituen erakundeekin koordinatuta. Hau da, pertsona zuzenean Hegoalde globaleko tokiko erakundeekin inplikatzen da, erakundeok laguntza eskatzen badiote. Horrez gain, borondatezko medikuak, erizainak eta sanitarioak Mundubaten osasun-lantaldean SEADen: urtean zenbait egonaldi kanpamentuetan.*
Gaiak	Giza eskubideak, generoa edo elikadura-burujabetza
Herrialdeak	El Salvador, Honduras, Guatemala, Nikaragua, Kuba, Kolonbia, Bolivia, Palestina, eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD).
Iraupena	Tokiko erakundearen arabera.
Baldintzak	Aurretiaz esperientzia izatea lankidetza-lanetan, eragin politikoan edo sare-antolakuntzan, eta kasu bakoitzaren berariazko baldintzak, tokiko erakundeak eskatutakoaren arabera.
Kostuak/ finantzaketa	Tokiko erakundeak lekuan bertan eskaintzen dituenak.
Harremana	Jaxinto G. Viniegra navarra@mundubat.org **T. 609 403 811** **www.mundubat.org**

Organización de Cooperación y Solidaridad Internacional - OCSI

Motak	Egonaldi luzeko boluntariotza
Gaiak	Lan komunitarioa, nekazaritza... eskatzailearen profilaren arabera.
Herrialdeak	Nikaragua, Peru
Iraupena	Urtebete baino gehiago; 3 urte normalean.
Baldintzak	Urtebete gutxienez parte hartzea OCSIn. Prestakuntza eta gogoetako aurretiazko prozesu bat egitea: “Irteera proiektua”.
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** bidaia, interesdunaren gain. **Finkatzeko:** Mantenua OCSIren, pertsonaren eta tokiko erakundearen arteko akordioen arabera egiten da.
Harremana	David Ziganda eta Olga Elizburu **T. 948 22 53 12** navarra@ocsi.org.es **www.ocsi.org.es**

SETEM Navarra - Nafarroa

Motak	Elkartasun-auzolandegiak
Gaiak	Lankide dituen erakundeenak: bidezko merkataritza, lan-eskubideak, elikadura-burujabetza, ekonomia solidarioa, etab.
Herrialdeak	SETEMek lan egin ohi duen herrialdeak: Argentina, El Salvador, India (*aldatu ahal da*)
Iraupena	Hilabete inguru, uztailean eta/edo abuztuan.
Baldintzak	21 urtetik gora izatea eta prestakuntza-ikastaro bat egitea urtarriletik martxora bitartean, asteburuko topaketa batean parte hartzeaz gain
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioa:** gastu guztiak (bidaia, egonaldia, asegurua…) parte-hartzaileen gain egongo dira.
Harremana	José Luis Mariñelarena nafarroa@setem.org **www.setem.org/navarra**

Solidaridad para el Desarrollo y la Paz (SODePAZ)

Motak	Turismo solidarioko bidaiak, 2018
Gaiak	Hezkuntza, giza eskubideak, komunitate indigenak, energia berriztagarriak.
Herrialdeak	Palestina, Kuba, Guatemala, Grezia, Portugal
Iraupena	2 astetik hilabetera bitarte
Baldintzak	Adin nagusikoa izatea, beste kultura batzuk errespetatzea, ikasteko eta partekatzeko gogoa
Kostuak/ finantzaketa	Gastu guztiak bidaiarien gain egongo dira
Harremana	sodepaz@sodepaz.org Argibide gehiago: **https://viajesolidariosodepaz.wordpress.com/**

Solidaridad, Educación y Desarrollo - S.E.D.

Motak	CTM (auzolandegiak eta misioa, gaztelaniazko sigletan)
Gaiak	Hezkuntza, aisialdi eta astialdia, osasuna
Herrialdeak	**Afrika:** Kenya, Benin, **Amerika:** Guatemala Asia: Bangladesh **Europa:** Errumania eta Fuenlabrada (Madril).
Iraupena	CTM: 4 eta 6 aste bitarte
Baldintzak	• 21 urte beteta izatea atzerrirako, eta 18 urte, Espainiarako. • Hautaketa-prozesua gainditzea SED Ibéricako prestakuntza-lantaldeko pertsona batekin. • Nahitaezko prestakuntza. • Balioetsi egingo da aurretiaz esperientzia izatea boluntariotzan. • Oinarrizko jakite-maila helmugako herrialdeko hizkuntzan. • Erlijio-sinesmenak onartzea eta errespetatzea. • Itzultzean, sentsibilizazio-jardueretan parte hartzeko konpromisoa.
Kostuak/ finantzaketa	**Boluntarioak:** joan-etorriko bidaia (herrialdearen arabera), txertoak, bisak eta prestakuntzetarako joan-etorriak. Gainerako gastuak SEDen eta erakunde kidearen gain egongo dira.
Harremana	Jaione Lasa **T. 948 80 43 69** sednavarra@sed-ongd.org **www.sed-ongd.org** Parte hartu duten pertsonen lekukotasunak: **www.tugranodearena.org**

Holly Mandarich on Unsplash

#4

Eta zer pentsatzen dute kontraparteek?

Aurreko atal batean, nazioarteko boluntariotzako esperientziak bizi izan dituzten pertsona batzuen lekukotasunak erakutsi ditugu, baina, zer ekarri dien kontraparteei boluntario bat hartzeak?

Boluntarioen lana erantzukizuna, prestasuna, bokazioa eta pasioa behar dituen esperientzia bat da, ez da bat-bateko ekintza iragankor bat; horrenbestez, arau baten mende jarri behar da, komunitate batzuen edo talde jakin baten kulturak ezagutzen, ikasten, eta partekatzen irakatsiko dien horiek moldatze aldera. Esperientzia gogobetegarria izan da, eta geldialdi bat egiten ikasteko bide eman digu, eta horrela atzera begiratzeko eta erakundearen lanean egin den ibilbideaz ohartzeko.

Antonio Flores. *Cabañas-Cuscatlángo eskualdeko kudeatzailea (PRO-VIDA), El Salvador (El Salvador Elkartasuna kolektiboaren kontrapartea)*

BEGIRADA ZORROZTU ZUTEN... ENTZUERA SAKONDU ZUTEN ETA BIHOTZA ZABALDU...

esperientzian zehar etengabe topatu dituzten pertsonen eta egoeren bidez.

Ekuadorreko ahizpa teresarrak

Guretzat pozgarria izan da emakume gazte bat hartzea, hemengo pertsonekin hainbeste inplikatu dena. Ematen genizkion eginkizunen aurrean erakutsitako ilusio eta gogoak poza eta motibazio berria eragin dizkigu. Kide bat gehiago zen gure artean. Eta jendeak gu bezala estimatzen eta balioesten zuen.

Kristo Jesusen misiolariak San Gabrielen (Bolivia)

Boluntario hauek oso ongi egin dira gure ingurunera. Eta ez zen erraza. Hasieran, mesfidantza apur batekin begiratzen zieten, baina laster asmatu zuten haurren zein heldueN konfiantza bereganatzen. Oso inplikatu dira, eta gogoz lan egin dute. Hala ere, denbora gehiago nahiko zutela zioten, gauza gehiago egiteko...

Kristo Jesusen misiolariak Dadouarren (Txad)

Shane Rounce on Unsplash

#5

Maiz egiten diren galderak

1.- Kooperantearen eta boluntarioaren arteko aldea.

Biak dira atzerriko herrialdeetako proiektuetan GGKEekin lan egin nahi duten pertsonak. Hala ere:

Kooperanteak (edo borondatezko lankideak) kualifikaziozko prestakuntza duten profesionalak dira, garapenerako nazioarteko lankidetzako nahiz ekintza humanitarioko proiektu edo programa jakin batean parte hartzen dutenak, edozein fasetan, proiektu edo programa hori egiten den herrialdean eta denbora-tarte gutxi-asko luzeetan. Pertsona horrek lan-harremana izan behar du (Borondatezko Lankideen Estatutuan arautua) GGKEarekin.

Pertsona boluntarioak, aldiz, era altruista eta solidarioan egiten du bere jarduera, diruzko ordainik jaso gabe, eta berak hartzen ditu bere gain bere lankidetzaren ondoriozko gastuak, GGKEarekin duen akordioaren arabera. Daitekeena da prestakuntza behar izatea edo ez, esleitzen zaion eginkizunaren arabera.

2.- Eta arazo medikoren bat baldin badut han?

Nazioarteko boluntariotzan ari den pertsona orok aseguru mediko bat izan behar du, GGKEak edo boluntarioak berak ordainduta (kasuaren arabera). Aseguru horrek zenbait laguntza-mota barne hartuko ditu, kontratuaren arabera.

3.- Nora doa nire dirua? Bada nazioarteko boluntariotzak sortutako gastuak finantzatzeko laguntza ematen duen erakunderik?

Boluntarioak hartzeak gastu eta ardura batzuk ekartzen ditu, boluntariotzan aritzea ez da proiektu bati bisita egitea; aitzitik, berarekin badakar, besteak beste, hainbat zereginetan laguntzea edo ekarpen ekonomiko bat egitea, edo zeure bidaia, egonaldia eta mantenua ordaintzea, eta GGKE batzuek ezin dituzte gastu horiek beren gain hartu. Abiatu aurretik, argi itzazu gai horri buruz dituzun zalantza guztiak: ea nora doan kudeaketa, garraio, mantenu, ostatu eta prestakuntzarako eman duzun dirua, eta, eman duzun dirutik, ea zenbat inbertituko den helmugako herrialdeko komunitateetan eta lankidetzan ariko zaren proiektuetan.

Oro har, ez dago dirulaguntzarik GGKE batekin nazioarteko boluntariotzan aritzeko bidaiek eta egonaldiek sortutako gastuak ordaintzeko. Zenbaitetan, baliteke autonomia-erkidego batzuek programak izatea boluntarioei diruz laguntzeko edo gastuak berdintzeko. Horretarako baldintza da dagokion erkidegoan erroldaturik egotea. Horri buruzko informazio eguneratua erkidego bakoitzeko koordinakundean duzue:

https://coordinadoraongd.org/organizaciones/clasificacion/coordinadoras-autonomicas/

#6

Eta ez banaiz joaten, zer egin dezaket?....eta itzultzen naizenean?

Eta nik zer egin dezaket neure eguneroko bizitzan?

Perry Grone on Unsplash

Bai, zuzen zaudete. Esperientzia hauek ez dira bukatzen itzultzen zareten egunean. Gauza asko egin ditzakegu eguneroko bizitzan, atzerrira boluntario joan zein ez.

Nola kontsumitzen dugun eta gauzak nola egiten ditugun, halako eragina izango du horrek beste herrialde batzuetan eta beste pertsona batzuengan. Pentsatu duzu zer energia kontsumitzen duzun? Badakizu gutxiagorekin bizi zaitezkeela? GGKEren baten kanpainaren batean laguntzeko asmorik hartu duzu?…

Ondoren, proposamen batzuk aurkezten dizkizugu, zure eguneroko bizitzan haiekin bat egiteko: Izan ere, Iparraldeko **gure kontsumoak** baditu **ondorio zuzenak** Hegoaldeko herrialdeetan; horregatik, proposamen batzuk aurkezten dizkizugu, zeure eguneroko erabaki eta ekintzen bidez lagun dezazun bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta solidarioagoa den mundu bat eraikitzen. Eragin ere, neurri handi batez eragiten dugulako munduan, geure eguneroko kontsumoaren bidez.

1. Egin apustu bidezko merkataritzaren[5] eta elikadura-burujabetzaren alde.

Bidezko merkataritza sistema komertzial solidario bat da, eta alternatiboa sistema konbentzionalaren aurrean, herrien garapena lortu nahi duena eta pobreziaren aurka borrokatzen dena, ekoizleen eta kontsumitzaileen artean borondatezko eta bidezko harreman komertzial bat ezarrita.

Elikadura-burujabetza da herriek, haien herrialdeek edo haien estatu-batasunek duten eskubidea, beren nekazaritzari eta elikadurari buruzko politika dumping[6] gabe definitzeko, hirugarren herrialdeen aurrean.

Alternatiba horien adibide batzuk dira:

- Nekazaritza ekologikoko[7] produktuak kontsumitzen dituzten kontsumo taldeak

Pertsona-talde hauek bestelako elikagai--kontsumo bat egiteko antolatzen dira, gaur egun hedaturik dagoen kontsumoa –erosketak supermerkatuetan edo auzoko dendetan egitea– ez bezalakoa, eta tokikoak, ekologikoak eta sasoikoak diren produktuak kontsumitzeko xedea dute. Kontsumo-talde hauek antolatzeak erraztu egiten du horrelako elikagaien ekoizpena eta banaketa, hurbileko pertsonekin lan eginez, ekoizpen ekologikoko eta hurbileko ekoizleekin harremanetan egoteko.

5.- Erreferentzia: http://comerciojusto.org/que-es-el-comercio-justo-2/

6.- Dumping: kontzeptu ekonomikoa, produktuaren prezioa ekoizpen-kostuak baino txikiagoa denean erabiltzen dena. Legez kanpoko jarduera da.

7.- Erreferentzia: http://www.cpaen.org

- Hiri-baratzea

Landa-inguruneti k hirira garraiatzeko kostua, lur emankorren nahiz ur-baliabideen eskasia gero eta handiagoa, eta hiriko beroa eta urak baliatzeko aukera direla eta, tokiko ekoizpena alternatiba errealista eta jasangarri bat da barazki freskoak ekoizteko. Horregatik, eta gero eta neurri handiagoan bilatzen dugulako janari osasuntsu eta naturalagoa, hiriko baratzea konponbide ezin hobea da.

Adibidez:
Zentzumenen Parkeko baratzea *(Noain),* **Piparrika** *(Iruñeko alde zaharra)…*

2. Finantza etikoak[8]

Banka etikoa, banka soziala ere deitua, finantza-entitateen multzo bat da, bere produktuak onura handienaren eta espekulazioaren mende soilik jartzen ez dituena. Ekonomia errealean inbertitzen dute, eta batzuetan haien barne-egitura parte-hartze kooperatiboan oinarritzen da.

"Txanponaren beste aldea" da, aurreztu eta inbertitzeko beste era bat, onura soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa bilatzen dituena. Zure diruak gizartea eraldatu egin dezake. Gure aurrezkiak non ditugun, jarduera batzuk edo beste batzuk finantzatuko ditugu eta, beraz, nahi dugun gizarte-mota erabakitzeko aukera dugu…

Nafarroan hiru erakunde ditugu:

FIARE
https://www.fiarebancaetica.coop/git/navarra

Beste proposamen batzuk:

Microfides
https://microfides.com

Triodos Bank
www.triodos.es/es/nuestras-oficinas/pamplona

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sare bat izateaz gain (REAS).

REAS
www.economiasolidaria.org/reasnavarra

8.- Erreferentzia: http://finanzaseticas.org/

3. Energia-burujabetza

Elikadura-burujabetzaz hitz egin dugun bezala, energia-burujabetza ere badago. Gure hurbileko ingurunean baditugu zenbait aukera:

Energia Gara
https://blog.somenergia.coop/etiqueta/energia-gara-na-farroa/

Nafarkoop Energia
https://nafarkoop.eus/es/

"GoiEner"
www.goiener.com

4. Beste ekimen batzuk:

Arroparen kontsumo arduratsua (Arropa Garbia Kanpaina)
Arropa Garbia Kanpaina (AGK), www.ropa-limpia.org, nazioarteko sare bat da, hainbat GKEk, sindikatuk eta kontsumitzaile-elkartek osatutakoa, jantzigintzaren industria globaleko langileen baldintzak hobetzeko lan egiten duena.

Campaña Ropa Limpia
Clean Clothes Campaign

5. Kontsumo-harreman alternatiboak

Trukea: ondasun material edo zerbitzuen ordainetan beste objektu edo zerbitzu batzuk ematea da trukea; ohiko salerosketan ez bezala, ez dago dirurik tartean.

Denbora-bankua: horrelako komunitate batean, zerbitzuak truka ditzakezu beste erabiltzaile batzuekin, trukerako dirutzat denbora erabiliz.

6. Software librea erabiltzea

Gaur egun, ordenagailuen mundua konpainia bakar batek –Microsoftek– kontrolatzen du, bere sistema eragileak sartu baititu munduko ordenagailuen %73an baino gehiagoan. Horren ondorioz, haren erabakien mende gaude, boterea eman baitiogu haren sistemak erabili eta hautatzean. Naturan, bioaniztasuna da haren iraupenaren eta jasangarritasunaren gakoa. Hori konputazioaren arlora ekartzen baldin badugu, jasangarritasuna bermatzeko, aniztasunaren aldeko apustua egin beharko dugu, heterogeneotasuna ziurtatzen duten programak eta sistemak lehenetsi beharko ditugu.

Webgune honetan beste aukera batzuk dituzu, bai alternatiba teknologikoak, bai kontsumo konbentzionalaren arloko beste batzuk: http://mecambio.net/

MECAMBIO
HAY ALTERNATIVAS

Rawpixel on Unsplash

#7

Esteka interesgarriak

1	COORDINADORA ONG PARA EL DESARROLLO ESPAÑA	Garapenerako GKEen Koordinakundea Espainia https://coordinadoraongd.org/
2	NAFARROA, OROTAN LAGUN NAVARRA + VOLUNTARIA	Nafarroa Orotan Lagun https://www.navarramasvoluntaria.es/
3	hacesfalta.org Fundación hazlaposible	Haces Falta www.hacesfalta.org
4	PLATAFORMA DEL VOLUNTARIADO DE ESPAÑA	Boluntariotzaren Espainiako Plataforma: www.plataformavoluntariado.org
5	UN Voluntarios inspiración en acción	Nazio Batuetako Boluntarioak www.unv.org/es
6	CUERPO EUROPEO DE SOLIDARIDAD	INJUVE. Europako Elkartasun Kidegoa http://www.injuve.es/
7	PORTAL EUROPEO DE LA JUVENTUD	Gazteriaren Europako Ataria http://europa.eu/youth/country/76_es
8	CEV European Volunteer	Boluntariotzaren Europako Zentroa www.cev.be
9	CERMIN Navarra - Nafarroa	CERMIN http://www.cermin.org/
10	RED DE LUCHA CONTRA LA POBREZA Y LA EXCLUSIÓN SOCIAL POBREZIAREN KONTRAKO SAREA	Pobreziaren kontrako sarea www.redpobreza.org
11	reas NAFARROA ekonomia alternatibo eta elkartasunezkoaren sarea	REAS Nafarroa www.economiasolidaria.org/reas-navarra